



HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2014/06/18

BILERA ZENBAKIA: 6

ORDUA ETA LEKUA: Arratsaldeko 19:00etan

PARTEHARTZAILEAK: 20 parte hartzaile (6 gizonezko eta 14 emakumezko)

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Egindako ekintzak.

- a. Pomada ikastaroa: 26 lagun elkartu ziren, bakoitza bere potetxoarekin joan zen eta 2 pomada egin zituzten. Balorazio ona.
- b. Sasietaren atez-atekoaren hitzaldia: 20 bat lagun elkartu ziren, eta hitzaldi oso positibo eta ongi adierazia bezala azaldu zuten.
- c. Ongizateko arduradunaren hitzaldia: 15-18 lagun bildu ziren eta hitzaldi dinamikoa izan zela adierazi zuten.
- d. Oriko irteera: Bertan behera gelditu zen.
- e. Herri Eguna: Nahiz eta Ostiralean, ekainak 20ean biltzeko diren balorazio zehatzagoa egiteko, orokorrean ongi joan zela adierazi dute. Tortilla txapelketarako azken momentuan jende asko apuntatu zelako, (suak, mahaiak, e.a. material) atontzeko arazoak izan ziren, ala ta guztiz ere, jende asko bildu zenez balorazio ona.

2. Aurrera begirako ekintzak:

- a. San Juan Sua: Ekainak 23an 20:30etan Sardina eta Sagardo dastaketa. 22:00etan Sua piztu eta Dantza suaren bueltan. Ordiziako Albokariak etorriko dira. Dantzariantzat afaria Kaxintanen izango da. Dantzarako entsaioetan 23 lagun bildu dira.
- b. II. Garagardo Azoka: Uztailak 4 eta 5ean ospatuko da. Horretarako Frontoia eta inguruak behar dituztela eta huez gain, mahaiak, aulkiak, suak, musika ekipoa. Horretarako Zaborra nola kudeatu hitz egin behar da. M.Z.-ri eta kontsultatu trikitia jotzeko posibilitateaz.
- c. Abuztuko Jaiak: Abuztuak 14ean jubilatuen afaria (konfirmatzeko). Musika ekipoa beharko dute. Abuztuak 15erako hamaiketako



emateko, toka txapelketa antolatzeko eta sagardo dastaketarako laguntza behar izango dela eta hemen gauden lagunoi eskatzen zaigu hemen izango garenoi laguntza hori emateko.

d. HERRIKO JAIAK

Irailak 19, ostirala:

Festa Hasiera (txupinazoa???) : (Gaztelekua)

17:00-19:00 Haur Jolasak. (Guraso Elkarte)

17:00 Zinta Karrera. (Gazteak)

20:00 Futbola (Sortu)

21:00 Herri Afaria. (Porra bat egin, tikeak jaso)

Kontzertua.

Irailak 20, larunbata:

09:00 Goiz Eresia.

13:00 Beitiko igoera. (I.K.E.)

14:30 Paella Txapelketa. Epaiak (Jubilatuak)

17:30 Pailazoak. (Guraso Elkarte)

19:30-21:00 DJ + Mozorroak: Gaia: 2014 urtea


21:00 Bokatak (Kanpotik ekartzeko proposamena)

21:30-23:00 DJ

23:00 Atila kontzertua

Irailak 21, igandea:

09:00 Goiz Eresia



- 11:00-13:00 Puzgarriak
- 11:00 Alzagarateko igorea (I.K.E.)
- 12:00 Hamaiketakoa
- 14:30 Bazkari Herrikoa
- 16:00-18:00 Puzgarriak
- 18:30 Pilota Finalak, Sariak (???)
- 19:00 Dantzak (???)
- 19:30 Buruhandiak (Gazteleku)
- 20:00 Sagardo dastaketa (Arbel-Aitz)

| ETXEKO- LANAK | NOIZKO? | ZEINEK? |
|---------------|---------|---------|
| | | |
| | | |
| | | |

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, Uztailaren 16-an egingo dugu, asteazkena, arratsaldeko 7tan Udaletxean.

Gai ordena:

1. Aurreko ekintzen balorazioa
2. Abuztuko eta Iraileko jaiak guztiz lotzea.
3. Aurrekontuen lanketa